

www.noaia.com

Noaia!!!



Larunbat honetan,
Donosti-Ereski abesbatza



Enplegua sustatzeko asmoarekin,
eskualdeko lankidetzak bultzatuko dute udalek

ESKERRIKASKO USURBIL!!!



ARTZABAL

Leku bat usurbildar guztionzat

943 36 91 93

Ostegunetan
18:30etatik aurrera:



ardo krianza edo kaña bat
+ pintxo bat €1,50

Eguneko Menua - Menu Bereziak - Plater Konbinatuak - Bokatak

Noaua! Kultur Elkarteko Bazkideen Batzar Nagusia

EGUNA: Martxoak 27, ASTEARTEA

ORDUA: Lehenengo deialdia, 19:00h

Bigarren deialdia, 19:15h

TOKIA: POTXOENEA kultur etxea



GAI-ZERRENDA:

1. 2011ko memoria eta balantze ekonomikoa
2. 2012ko egitasmoak eta aurrekontuak
3. Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
4. Galdera / erantzunak

Noaua!!

www.noaua.com

Albistea iruditan!

Atez atekora ongi etorria, beste 34 udalerriei

Martxoaren 16an hiru urte bete zituen atez ateko bilketak. Urtemuga ospatzeko ekitaldia antolatu zuen Gipuzkoa Zero Zabor bilguneak, joan den igande eguerdian. Atez ateko bilketa egiten duten udalerrietako, eta 2013tik aurrera sistema bera martxan jarri asmo duten 34 udalerrietako herritarrak bildu ziren frontoian. Usurbildarren eskutik, zorionak, eskerrak eta animuak eman zitzaizkien zero zabor norabidearekin bat egin asmo duten udalerriei. Eta udalerriotatik, eskertu egin zuten, "hondakinen arazoa konpontzeko bidea erakutsi diguzuelako". Udalerrien mugekin zehazturiko Gipuzkoako mapa bat koloreztatu



ATEZ ATEKOARI BABESA EMAN ZIOTEN, HIRUGARREN URTEURRENEAN.

zuten, atez atekoa martxan jarriko duten udalerriekin. Kubo marroiak eskutan,

bertaratu ziren herritarrek atez atekori babesa adierazi zioten.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Egunekeo Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiaro Kirolegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publicitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregerai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



LUIS ARANALDE

Berradiskidetze bidean

Lehenengo asteazkenean, martxoak 4a, Jonan Fernandez, Baketikoko (Arantzazuko Bakerako Zentroa) Zuzendariaren hitzaldia entzun eta elkarrizketan parte hartu nuen. Gure Antiguako Pastoral Barrutiko talde sozialak gonbidatu zuen, bakegintzan egiten ari garen saiakerak bideratzen lagun diezagun. Jende asko bildu ginen, baina, gazte oso gutxi. Gai hau ez ote zaie interesatzen edo ze arraiot!

Hitzaldia oso interesgarria izan zen; benetan pedagogo ona da Jonan. Izenburua zera izan zen: "Bizikidetzaren berradiskidetzea". Ez da erraza gai hori denek ulertzeko moduan jorratzea, baina, lortu zuen nire uste apalean.

Hiru ardatz zituen bere mintzaldiak: iragana, oraina eta geroa edo etorkizuna.

Iragana: gertatutakoaren egia aztertu behar da lehenbizi, sufrimendu, biktima eta giza-eskubideen bortxaketa guztiak aintzakotzat hartuz, inongo salbuespenik gabe. Gertatutakoaren arrazoiak eta sorrerari buruzko interpretazio desberdinak egongo direla onartu behar dugu, noski. Baina, nahiz eta diagnostiko ezberdinak egin askotan, posiblea eta desiragarria da balorazio etiko baten konpromisoa hartzea.

Oraina: orainaldiari dagokionez, biktima guztienganako enpatia agertzea da lehenengo jarrera. Beharrezkoa da egindako mina aitortzea. Autokritika adierazpenek edo barkamen eskakereak balio handia izan dezakete. Iraganaren inertiak atzean utzi behar ditugu eta jarrera aldaketa sakon bat bultzatu. Bakea sendotuz eta bizikidetzea integratua bultzatuz, humanizatu egingo gara guztiok.

Geroa: gizarte eta hezkuntza mailan, bizikidetzarako eta gizarteko gatazkak gaiztatzeko kultura etiko bat bultzatu beharrean gaude. Adostu beharra daukagu indar politiko guztien artean metodologia demokratiko bat arazo klase guztiak konpondu ahal izateko. Eta iragana errepika ez dadin, neurri sendo batzuk hartu beharko ditugu eta beroiek denboran iraunarazten saiatu.

Gutxi gora-behera hauek izan ziren aztertutako ideia nagusiak. Ondoren, elkarrizketari eskaini zitzaion tarte luze samar bat. Batek galdetu zion Jonani ea kristau elkarte bezala bete-

behar berezirik bagenuen berradiskidetze lan horretan eta bere erantzuna baiezkotzea izan zen. Hain zuzen ere Jesus nazaretarrari zor dizkiogu Jonanen esanetan bi gauza funtsezkoak gai honetan: alde batetik, giza duintasunari zor diogun neurri gabeko begirunea; ebanjelioarentzat pertsona bakoitza bere zirkunstantzian ideologia, aberri eta gainerako errealitate guztien gain dago. Hori da balore gorena. Eta bestetik, barkamena eta errekontziliazioa dira elkarbizitzaren ardatz nagusiak. Nik ere galdera bat egin nion: ezker abertzaleko batek esan berria zuela barkamena eskatze hori asunto erlijiosoa zela eta nire ustez ez zela horrela, hau da, barkamena eskatzea giza jokabide oinarrizkoa zela, ateo, agnostikoa edo sinestaduna izan, barkamenik gabe ez dagoela benetako humanizaziorik. Guztiz konforme agertu zen nire planteamenduarekin.

Gure pastoral barrutiaren ekimen nagusiak agertu genizkion ondoren; horien artean,

1- Itxaropenari eustea, bakea eta berradiskidetzea posible dela sinestea.

2- Norbera barrendik baketua egon ezik, ezin dela bakegintzan lanik egin.

3- ETA betirako desagertzea eta salbuespenezko neurri errepresiboak bukatzeko eskatu.

4- Gure gizarteko biktima ugarietik dugun jarrera berrikusi zuzentasunez eta maitasunez.

Gure proiektu hau aurrera eramaten lanik anitz bagenuela iruditu zitzaion.

Asko miresten dudana idazle batek esaten zuen lehenengo batean: "euskal gizarteak erabaki behar du zeri ematen dion lehentasuna: iraganeko gaiztakeriari eutsi ala hori ahantzi gabe barkamenaren orainean eta geroan sartu".

Ukitu musikal batekin amaitu nahi dut gogoetatxo hau. Mozart-en azken operan Tito enperadorea agertzen da; hain zuzen ere, bere andregaiak eta lagun min batek bere hilketa matxinatu zuten. Porrot egin zuten eta Titok barkatu egin zien biei. Hau idatzi zuen Titok: "Munduak erruren bat leporatu behar badit, errukiarena izan bedi eta ez gogortasunarena".

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Urnietako IAT-ITVko langileak, greban

Mobilizazioetan dira Urnieta eta Mirungo IAT-ITV enpresatako langileak. Lan uzteak iragarri dituzte, martxoaren 27rako, eta apirilaren 16, 18 eta 26rako. Ordutegi honetan; 10:45-18:20 artean. Halaber, martxoaren 29rako deitua dagoen greba orokorrekin ere bat egin dute.

Lan baldintzak jasotzen dituen

hitzarmena da hain zuzen, lan uzteak deitu eta burutzeko arrazoi nagusia. 2009tik 2011ra sinatua zuten hitzarmena, abenduaren 31n amaitzen zen. Hitzarmena berritzeari buruzko aurre-iragarpen ordea oraindik ez dela eman diote langileek.

Enpresaren aldetik hiru bileretarako deialdia jaso dutela aipatzen dute; martxoaren 12, 26 eta apirilaren 17rako

hain zuzen. "Lehen bilera ez zen burutu" eta gaineratu dutenez, hitzarmena berritzeko enpresaren proposamenik ez dute. Horregatik, lan hitzarmena berri-arte, otsailaren 29az geroztik mobilizazioetan murgilduak daude.

Mobilizazio hauen inguruko informazioa, langileek sortua duten blog honetan jarraitu daiteke:

huelgaitvgipuzkoa.blogspot.com

2012rako udal aurrekontuak behin betiko onartuak izan dira

Urte honetarako aurreikusiak dauden egitasmoetara bideratu beharreko udal aurrekontuak behin betiko onartu ditu udalbatzak gehiengo osoz. Martxoaren 16an burutu zen ezohiko osoko bilkuran, hasieraz onartu zireneko bozketa emaitza bera errepikatu zen. Aurrekontu proposamena gobernu taldeak babestu zuen, gainerako udal taldeak aurka agertu ziren.

Gai honi loturiko hiru bozketa burutu ziren. Batetik, udal aurrekontuak hasieraz onartu ostean, Hazienda Batzordeko lehendakari Alaitz Aizpurua zinegotziak planteaturiko emendakina babestu edo ez erabaki behar zuen udalbatzak. Eta aipatu aldaketa aurrera atera zen, gobernu taldeak babestu baitzuen. Oposizioa aldiz, aurka agertu zen. Aurrekontuak behin betiko onartu aurretik, bigarren bozketa bat ere burutu zen. Hain zuzen, jendaurrean egon den epean, Hamaikabat udal taldeak erreklamazio bat aurkeztua zuen. Osoko bilkuran, gobernu taldetik aipatu alegazioa aintzakotzat ez hartzea proposatu eta onartu zen gehiengo osoz.

Bozketen txanda hasi aurretik hain zuzen, Hamaikabatek udal aurrekontuen aurka agertuko zela iragarri zuen. Taldeko bozeramaile Luis Mari Ormaetxearen esanetan, Ugartondoko etxebizitzetan udal ekipamendu bat aurreikusia behar zuela adierazi zuen, eta zuhurtziaz Udarregi Ikastolara bideratu asmo dauden bi diru partidak aurrekontuotatik kanpo uztea eskatu zuen. Hamaika emendekin aurkeztu ditu Hamaikabatek,



MARTXOAREN 16KO EZ OHIKO BILKURAN HARTU ZEN ERABAKIA.

Ormaetxeak adierazi zuenez.

Hausnarketarako deia

Adierazpenoi erantzunez, gobernu taldeko kide Alaitz Aizpurua Ugartondoko etxebizitzetako udal ekipamendua jasotzea aurreikusia dagoela baieztatu zuen, "birpartzelazio fasean" dagoela gogoraraziz. Udarregirekin sinatua dagoen hitzarmen horren baitan emango direla pausoak, hori ere gaineratu zuen Bilduko ordezkariak ikastolako proiektuaren inguruan.

Gainerakoan, krisialdi ekonomikoak baldintzaturikoak direla adierazi zuten Bildutik, orekatu eta errealista gisa definitu zituzten udal aurrekontuak. Aizpuruaren esanetan, egitasmoetarako bi milioi euro gutxiago daude aurrean, Fondo Foralaren murrizketak, aprobetxamendu urbanistikoen beharrek eta azaroko uholdeek eraginda. Halere, gastu sozialari eutsi eta zorroztasunez jokatu dutela nabarmendu zuten.

Oposizioaren ezetza, ulergaitza Bildurentzat

Diru publikoen kudeaketaren inguruan zuhurtziaz jokatu eta hausnartzea beharrezkotzat jotzen du baita gobernu taldeak, aurreikusten dutenez bizi dugun egoera hurrengo urteetan luzatuko baita. Oposizioari zuzenduta, aurrekontuekiko zenbait udal talderen aurkako jarrera ulergaitza iruditzen zaiela gaineratu zuen Aizpurua. Aurrekontuak bozkatzeak jarrera arduratsua eskatu arren, zenbait udal taldeek aurka bozkatzea, Bilduren arabera, "arinegi hartutako erabakia izan da". Oposiziotik egindako hainbat ekarpen onartu eta horregatik, gobernu taldeak eskerrak jaso arren, Bilduren iritziz, "erabat bitxia da, alde batetik horrelako aipamena egitea eta era berean ezezko borobila ematea (udal aurrekontuei); inolako ñabardurarik gabe".



Aliprox
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182



izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitate@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatuak eta fatxadak
943 37 38 79 - 620 80 01 86
Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

KALEBERRI

ENKO HARREGUY

Esklabutza



Karrera bat egin beharra genuela; gainerantzean asko kostako litzaigukela lan bat aurkitzea. Horixe izan da maiz entzun behar izan duguna. Arrazoirik ez zuten falta. Gure adinekoek, hala ere, hainbestean izan dugu aukera ikasitakotik lana aurkitzeko. Eta behin astelehenetik ostiral edo larunbatera lan egin ostean, gure saria jaso eta bizi proiekturako beharrezko zaizkigun baliabideen jabe egiten ahalegindu gara (dela ibilgailua, dela etxea...), ondo kostata bada ere. 30-40 urte atzera egin eta nork ez du bere egin dagoeneko eta aspalditik, adibidez, etxebizitza? Gaur egunetik aurrera, kasik, ez dio ajolako zer ikasketa lortuko dituzun. Edota agian, aurrerantzean izango diren karrera motak zeharo aldatuko dira eta psikologia (lagun hurkoa nahiz nagusi hurkoaren jarrerak ulertu asmoz jaso beharreko heziketa) gai komuna izanik, sumisioa, esklabutza... izango dira barneratu beharko ditugun baloreak. Zuk eskubidea daukazu 14 orduko lan egunari baiezkoa emateko. Eskubidea uda joan eta negua etorri, osasuntsu egoteko. Eskubidea igogailua hartzeko eta eskaileretan hankik ez okertzeko... Eskubidea, halaxe eskatzen badizute, jai-egunetan lanera joateko... Eta ugazabak nahikoa du bizarzuriren erreforma heldu eta zu kale gorrian uzteko eskubideren bat aukeratzea. Aukeratzea, bai. Zoriz bada ere, aukeratzea, bai. Su ta garrek honela abesten zuen aspalditik: Bizitzan zehar daukagun funtzioa/nahi baldin badugu lana da beharrezkoa/baina gertatzen dena/lanik ez dagoela/eta baldin badago esklabu bihurtu zara. Horregatik, 29an...

KALEZAR

MADDI GALBETE

Olaiaren erronka



Hilabete erdi bada lehenengo aldiz Donostiako Gipuzkoa plazatik pasa eta Olaia eta Aitorren etxea ikusi nuenetik. Kristalezko lau horma eta metro karratu gutxi batzuk. Etxearen barnean gertatzen ari zen guztia entzun zitekeen kanpotik; esaten zuten hitz eta esaldi bakoitza; begiradak eta keinuak. Berriak, irakurri nuen lehen momentutik, nabarmen lapurtu zidan arreta. Erabat surrealista zela pentsatu nuen hasieran "nola pasako dute ba, hilabete osoa lau horma horien artean?" Helburua, Aitorrek birziklatzen ikastea (Aitorrek, birziklatzen ez dakien jende guztiaren izenean). Olaiaren laguntzaz, noski. Nor ez da sekula "Aitor" sentitu? Duela hiru urte gure artean ere egongo zen horrela sentitzen zenik. "Nora bota behar dira txikleak? Eta paper albala? Eta zikindutako papera?" ... zenbat gauza! Erronka polita, aldi berean oso erraza edo oso zaila (denetarik "Aitorrak" daudelako gure artean, ikasi nahi eta nahi ez dutenak), baina hilabetea aurrera doan heinean badirudi pixkanaka Aitor ikasten ari dela. Ea ba, denon artean, gure herrian bezalaxe bestetan ere, lortzen dugun! Animo, Aitor!



ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Negua joan da ta



Negua joan da ta... baina krisi ekonomiko gordin amaigabeak hemen dirau gure artean. Krisia, mehatxua eta aukerak. Arimak hozten dituen krisia, langabezia eta diru-eskasia, bizilagunaren tristora, amaren beldurra, greban dagoen kontratatuaren amorrua, autonomoaren urduritasuna... Baina krisiak bota du makrokartzela pikutara, ekarri du irudimena inguruko denda, jatetxe eta sagardotegietara, moteldu ditu aberats berrien gehiegikeriak eta politikarien makroastakeriak. Negua joan da ta... Usurbilek ospatu ditu atez atekoaren 3 urteak, makinak gelditzen ari dira eta zubietarrok ere uxatuz goaz erraustegiak eragiten digun beldur eszenikoa, badatoz atez atekoaren izpi lasaigarriak Gipuzkoako beste 34 herritatik, Gipuzkoako beste antzerki obra bat estreinatuko du, teloiaren atzealdean dago eguzkia, ateratzear... Negua joan da ta, ekar dezagun udaberria.

ATXEGALDE

M^A JESUS URBIETA

San Jose Eguna



San Joseren astean gaude, urtean zehar gure historiaren parte bilakatu den une bat. Txikiak ginenean, oso egun berezia izaten zen guretzat Aitaren Eguna. Ilusioz beteta egoten ginen. Orain ere toki batzuetan jarraitzen dute, baina Euskal Herrian egun soila bihurtu da. Halere aurrera jarraitu behar, eta garizuman gaudenez, Aste Santuari begira gaude urtero bezala. Elizak ospatuko baitu, Ostegun, Ostiral Santu, edota Pazko Eguna. Gure parrokan ere izango ditugu ekitaldiak; abesbatzako partaideak prestatzen ditugu, abesti samur eta goxoak urtean behin gogoratzen ditugu, eta hautsak kentzen saiatzen gara. Beste batzuk opor bila joango dira, mendi edo itsas aldera, atsedean bila. Ondo hartzen da aukera hori ere. Natura ere mugitzen hasia da. Udaberrian sartu berriak gara eta inguru paregabeak ditugu. Mimosak eta San Jose loreak oso bertan ditugu gure auzotik, beraz hurbildu egingo gara, aukera dugunean.

Martxoaren 31n, Elkartasun jaialdia

Euskal preso eta iheslari politiko-koen eskubideen aldeko hilabete-ko azken ostiraleko elkarretaratzea burutuko da, ohi bezala, astebete barru martxoaren 30ean, iluntzeko 20:00etatik aurrera Mikel Laboa plazan. Oraingoan ordea, elkarretaratzearen bihamunerako egun osoko Elkartasun Eguna antolatu dute, ITAYA Gazte Asanbladak, Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak eta Nafartarrak taldekoek.

Kirol ekimenak, kantu-jira, kontzertu gaua edota herri bazkari eta afari bana antolatu dituzte martxoaren 31rako. Bi otorduotarako txartelak hain zuzen, alde zurretik erosi behar dira. Frontoian burutuko den bertso bazkarirako sarrerak, Irrati eta Txiriboga tabernetan egongo dira salgai, martxoaren 28ra arte. Prezio hauetan; langileek 15 eurotan, ikasle eta langabetuek 12 eurotan.

Kantu afaria Artzabalen

Kantu afaria ere ospatuko da egun berean. Honako menua dastatu ahal izango da Artzabalen: espinaka eta ganba pudina; bakailu takoa saltsan; basurde gisatua; flana izozkiarekin; edaria (urteko ardoa, sagardo), ogia eta kafea. Prezioa: 22 euro. Txartelak salgai, Bordatxon eta Artzabalen.



KANTU-JIRA ETA KANTU-AFARIAREN ONDOREN, FRONTOIAN KONTZERTUA EGINGO DA. BESTEAK BESTE, LAKET TALDEKOAK ARITUKO DIRA.

Hona hemen martxoaren 31ko "Elkartasuna Eraikiz" ekimeneko egitarau osoa:

11:00 Herri kirolak frontoian.

12:30 Triki-bertso poteoa: Unai Gaztelumendi eta Imanol Lizarazu "Habana"rekin.

14:00 Bertso bazkaria frontoian, Unai Gaztelumendi eta Imanol Lizarazu "Habana" bertsolariekin.

18:00 Manifestazioa Mikel Laboa plazatik.

19:00 Kantu-jira Askatasuna plazatik. Iparraldeko kantariez eta musikariez lagunduta; *iparra eta begoa elkarrekin kantuan!*

21:00 Kantu afaria Artzabalen.

23:00 Kontzertuak frontoian: Bertan Bera, Materia Gris, Trifulka eta Laket musika taldeak.

Antolatzaileak: ITAYA Gazte Asanblada, Euskal Kantu Taldea eta Nafartarrak Taldea.

Amaiurrera irteera, larunbat honetan

Eskualdeko gazteen arteko harremana bultzatu asmoz sortu eta joan den martxoaren 10ean aurkeztu zen jendaurrean, Jalgi Hadi Garaipenera! Buruntza bilgunea. Prentsaurreko hartan iragarri zuten, larunbat honetarako, martxoaren 24rako irteera antolatu dute Amaiurrera.

"Bertan, gure historiaren parte bilakatu den gertaeraren berri ematea izango da helburua, astean zehar herri bakoitzean egongo diren ekitaldiei nolabaiteko akabera emanez", adierazi zuten prentsaurreko bidez.

Bazkaria, Elizondon

Egun pasa antolatu dute beraz. Lehenbizi Amaiurren izango dira, "bertan, batailaren berri emango dugu gaztelua zenaren inguruan, hurbiletik ikusteko bertan zer gertatu zen". Gero Elizondora joango dira. Bertako gazteekin bildu eta bazkalduko dute. Eta jarraian, "bost herrien arteko harremana sendotzeko asmoz kantu saio bat eta joku erraldoi bat egitea da gure asmoa, gure kultura eta historiaren inguruko ezagutza praktikan jarritz. Honela gure hezkuntza osoago bat izango genuke eta gure helburuak egiazkoagoak izango dira".

Ziortzaren eskutik, udan Peñaloscintosera

Uda honetan ere, Peñaloscintosera doaz Ziortzakoak eta izena emateko epea ireki berri da.

Bi txanda egingo dira: uztailearen 3tik 15era, DBH-ko ikasleekin. LH 5-6 mailetako ikasleekin, uztailearen 15etik 22ra.

Izen-emate orriak Sutegin, Kiroldegian eta apaiz etxean eskura daitezke. Orriak bete eta apaiz etxeko bulegoan utzi beharko dira edo email bidez bidali, ziortzage@gmail.com helbidera.

“Oso ondo ari dira usurbildarrak”

Mertxe Aizpurua alkatea, atez atekoaz San Markoren egoitzan

Atez Ateko Bilketak hiru urte bete zituen martxoaren 16an, agerraldia eskaini zuten Usurbilgo Udaleko alkate Mertxe Aizpurua eta San Marko Mankomunitateko lehendakari Ainhoa Intxaurrendietak. Hedabide ugariaren arreta erakarritako deialdian, atez ateko bilketak hiru urteotan izandako ibilbidea baloratu zuten.

2009ko martxoaren 16an atez atekoa abiatu zenetik, Usurbilgo alkatearen esanetan, “Usurbilek asmatu egin duela esan dezakegu. Eta ondo ez, oso ondo ari dira usurbildarrak. Harro nago neure herriaz eta neure herritarrez eta eredugarri bihurtu gara. Gainerako herriak bide horretan sakontzera animatu nahi ditut”. Egunerokoan hondakinen bilketa normaltasun osoz burutzen dela esan eta atez ateko bilketaren eraginkortasuna defendatu zuten Aizpurua.

ALKATEAREN HITZAK

“6.100 biztanleko herri polita da Usurbil. Herri polita izateaz gain, herri garbi bat dela esatera nator”

Datu bat: egun, hondakinen ia %89 birziklatzen da Usurbilen. “Usurbildarrak zoriondu nahi ditut, normaltasun osoz kudeatzen ari direlako egoera hau. Erakusten ari direlako kontzientzia zibiko itzela dutela eta ondo egindako gauzak errekonozitu behar direlako”, zioen.

Kritiko direnen aldaketa

Hedabideetan argitara eman diren hainbat datu gezurtatzearekin batera, Usurbilgo errealitatearen berri eman zuen alkateak. “6.100 biztanleko herri polita da. Herri polita izateaz gain, herri garbi bat dela esatera nator. Herri garbia, arduratsua, aitzindaria eta aurre-rakoia da Usurbil. Azken aldi honetan hedabideetan hainbat eta hainbat aldiz,

alderdi politiko batzuen eraginez, beste irudi bat ematen ari dira gure herriaz. Onartezina da, batez ere erabat faltsua denean irudi hau”, adierazi zuen Aizpurua.

Edozein kasutan, denborarekin jarrera aldaketa bat espero du, egun atez atekoaren aurka daudenen aldetik: “Konbikzioa dut, hemendik gutxira orain kritikatzeko ari direnak eta erabat kontra jarri direnak, erabat aldatuko dutela euren iritzia sistema honi buruz. Eta barneratuko dutela normaltasun osoz, gaur egun usurbildarrek barneratu duten bezala”.

Konpostatze egitasmoez

Duela hiru urte atez atekoa abiatu zenetik, hondakinak birziklatzeko beste hainbat aurrerapauso eman dira Usurbilen. Tartean, alkateak gogorarazten zuenez, “Urbil merkataritza guneko eta poligonoetako hondakinak ere gaika biltzen” hasi baitziren 2010ean. Horrek gaikako bilketa ia %89ra igotzea ekarri zuen Usurbilen. “Zifra horietan mantentzen gara gaur egun eta 2011ri dagokionez, %88,8 batera iritsiko garela aurreikusuten dugu”, iragartzen du alkateak.



SAN MARKON ESKAINI ZUEN PRENTSAURREKOAREN BIDEA
WWW.NOAUA.COM ORRIAN IKUSGAI.

Horrekin batera, organikoa konpostatzeko egitasmoek izandako harrera nabarmendu zuen Aizpurua.

Gehiago, atez atekoaren bidean

Berriki, Gipuzkoako 34 udalerriek 2013an atez ateko bilketa martxan jartzeko asmoa erakutsi dute. Horien artean, San Marko Mankomunitateko hiru udalerri; Lezok, Pasaia eta Astigarragak.

Usurbil-Lezo konparatiba

Atez ateko bilketa, sistema garestia delako ere gogorarazi zuen Usurbilgo alkateak. Horren lekuko berak eta San Marko Mankomunitateko lehendakariak hedabideei helarazitako zifrak. Datu ofizialak direla gogorarazten dute, eta zalantzan jartzen dituztenek, Usurbilera etortzeko gonbita luzatu die alkateak.

Usurbil:

- Biztanleria: 6.137.
- Bilketa sistema: atez atekoa.
- Birziklatze maila, 2008: %28-%29.
- Birziklatze maila, 2011: ia %89.
- Zabortegeira eramandako kopurua: 114 kg pertsonako eta urteko (etxeetako eta poligonoetako barne).
- Zabortegeira hondakinak eramategatik ordaindu beharrekoa (2011):

90.895 euro (poligonoetako hondakinak barne).

- Lapatzeko plantara eramandako organikoaren kostua (2011): 58.243 euro.

Lezo:

- Biztanleria: 6.000 pasatxo.
- Bilketa sistema: ontziena.
- Birziklatze maila, 2008: %28-%29.
- Birziklatze maila, 2011: zertxobait gutxiago.
- Zabortegeira eramandako kopurua: 269 kg pertsonako eta urteko (etxeetako bakarrik, poligonoetako ez barne).
- Zabortegeira hondakinak eramategatik ordaindu beharrekoa (2011): 217.473 euro (etxeetako hondakinengatik soilik, poligonoetako bilketa San Markoren esku).

Soinurbil hasi da, Musika Astea igandera arte

Astearte honetan ekin zaio Zumarte Musika Eskolak eta Usurbilgo Udalak antolatutako Soinurbil Musika Asteari. Edozein kasutan, zortzigarren edizioa igandera arte luzatuko da. Egunero ekimen honi loturiko hitzordu bat izango da egunotan. Hona hemen egitarau osoa.

Martxoak 21, asteazkena:
Organo erakustaldia
Gidaria: Joan Luis Atxega.
18:30ean, Salbatore elizan.
Sarrera: doan.

Martxoak 22, osteguna:
Loatzo Musika Eskolarekin
18:30ean, Sutegiko auditorioa.
Sarrera: doan.

Martxoak 23, ostirala:
Demode Quartet
20:30ean, Sutegiko auditorioan.
Sarrerak: alde aurretik 6 eurotan
Oiardo Kiroldegian. Egunean bertan,
8 euro lehiatilan.



LARUNBATEAN SALBATORE ELIZAN IZANGO DIRA DONOSTI-ERESKIKO KIDEAK.

Martxoak 24, larunbata:
Donosti-Ereski abesbatza
20:00etan, Salbatore elizan.
Sarrera: doan. Babeslea: Kutxa.

Martxoak 25, igandea:
Garinoango Musika Banda
11:30 Kalejira. 12:30 frontoian.
Antolatzaileak: *Zumarte Musika
Eskola eta Usurbilgo Udala.*

"Emakumeen autoestima" tailerra

Parekidetasun zerbitzuaren ekimenez, "Emakumeen autoestima" izeneko tailerra antolatu da. Apirilean hasiko da eta dagoeneko izen ematea irekita dago.

Iraupena: apirila-ekaina.
Asteleheneran, 16.30-18.30.

Tokia: Usurbilgo yoga lokala,
epaitegi atzekoa.

Bideratzailea: Nagore Aranburu
psikologoa.

Hizkuntza: euskara.

Izena emateko moduak: Udaleko
Parekidetasun Sailera deituz (943
377 110) edota emailaz hona idatziz
parekidetasuna@usurbil.net. Kasu
honetan, datu hauek eman: izen-
abizenak, helbidea eta telefonoa.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Astelehenetik aurrera, Jubilatuen Astea

Gure Pakea elkartekoak, astelehenetik aurrera, Jubilatuen Astean murgilduta izango dira burubelarri.

Martxoak 26, astelehena
17:00 Bihotza eta birikei buruzko
hitzaldia Artzabalen, Jose Antonio
Arteagaren eskutik.

Martxoak 27, asteartea
17:00 "Erlaxatzen ikastaroa" tailerra

Artzabalen, Silbia Kamioren eskutik.

Martxoak 28, asteazkena
9:30 Irteera Donostiara. Bazkaria Kai
alde jabetxean. Izen ematea itxita.

Martxoak 30, ostirala
17:00 Ixabel Agirresaroberen ipuin
kontaketa saioa Artzabalen.

Apirilak 1, igandea
12:00 Meza. 14:00 Bazkaria Aialde-
Berrin. Izen ematea itxita.

Javier Orbegozo
·ITURGINTZA
·GASA ·BEROKUNTZA
659 602 789
943 37 29 37
Erreka-txiki 13, 3.esk USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL
677 37 34 66
943 36 21 78

Langabezia gorantz 2012ko urte hasieran, nahiz 2011ko datuen azpitik jarraitzen duen

Urte honetako lehen hilabetean Usurbilen 310 langabetu zeuden, INEM erakundeak kaleratu eta Usurbilgo Udalak bere web orrialdeko "Usurbil Zenbakitan" atalean jaso duenez. Joan den abuztuko datura hurbildu da langabezia tasa. Joan den udan, 309 langabetu baitziren Usurbilen. Aurreko hilabetearekin alderatuta, 29 langabetu gehiago zenbatu dira (%10,3 gehiago), baina duela urtebete baino 30 langabetu gutxiago daude Usurbilen (%8,8 gutxiago).


Alderaketekin jarraituta, abendutik urtarrilera Buruntzaldean %7,1 egin du gora langabezia tasak eta Gipuzkoan %6,9. Kasuotan ordea, duela urtebete baino langabetu gehiago dago eskualdean eta herrialde mailan; Buruntzaldean, %5,5 gehiago eta Gipuzkoan %6,1 gehiago.

ESKUALDEKO DATUAK

"Buruntzaldean, iaz baino langabetu gutxiago zenbatzen jarraitzen duen udalerririk bakarra da Usurbil"

Buruntzaldeara itzulita, datuak udalerririk aztertuz gero, iaz baino langabetu gutxiago zenbatzen jarraitzen duen udalerririk bakarra da Usurbil. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnietako datuei erreparatuta, udalerririk guztietan iaz baino langabetu kopuru gehiago dute. Astigarragan bereziki, iaztik hona %21,9 igo baita lanik gabe dauden herritarren kopurua. Beraz, urte hasieran Usurbilen langabetu kopuruak inguruetan baino gehiago gorantz egin duen arren, lanik gabe daudenen kopurua 2011ko datuen azpitik mantentzen duen udalerririk bakarra da zonaldean.

Emakume langabetu gehiago
Martxoaren 8an hainbat hedabideetan



ABENDUKO DATUEKIN ALDERATUZ, 29 LANGABETU GEHIAGO DAUDE ORAIN. BAINA IAZKO DATUEKIN ALDERATUZ, 30 LANGABETU GUTXIAGO.

kaleratu zen moduan, langabeziak emakume aurpegia du. Baita Usurbilen ere. 2012ko urtarrileko datuen arabera, usurbildar langabetuen erdia baino gehiago, %51,9 (161) emakumezkoak dira, gainerako %48,1 (149) gizonezkoak. Aldea edozein kasutan, txiki samarra da. Alderaketekin hasita, abendutik urtarrilera antzeko ehunekoetan igo da emakumezko zein gizonezkoen langabezia tasa; %10,3 emakumezkoen artean (15 langabetu gehiago), %10,4 gizonezkoen artean (14 langabetu gehiago). Halere, aipatu moduan, iaz baino langabetu gutxiago dago herrian; 9 emakume langabetu gutxiago (-%5,3) eta lanik gabeko 21 gizonezko gutxiago (-%12,4).

25-44 urte artean, langabetu gehien

Adin tartearen arabera, ohi denez, 25-44 urte arteko herritarren artean dago langabezia tasa handiena. 158 langabetu zenbatu zituen INEM-k urte hasieran. 121, 45 urtetik gorako artean, eta 31, 16-24 urte artean. Adin tarte guztietan igo da langabezia abendutik urtarrilera, baina iazko datuekin alderatuta, 16-24 urte dituzten herritarren artean igo da soilik, langabetu kopurua. 9 langabetu gehiago zeuden urtarrilean (+%1,8).

Langabetuen %60, zerbitzuen sektorean

Sektoreka, langabetu gehien zerbitzuen alorrean dago; 2012ko urtarrilean, 188 (%60,6); industrian gutxiago, 63 (%20,3). Joerak ez dira aldatzen gainera. Abendutik urtarrilera, zerbitzuen sektorean egin du gehien gorantz langabeziak, %6,8. Duela urtebeteko datuekin alderatuta ordea, badago desberdintasunik. 2011n baino langabetu gehiago dago eraikuntzan (+%0,9), lehen sektorean (+%0,6) eta aurretik ere lanik ez zutenen artean igo da langabezia, %3,2. Industrian eta zerbitzuetan aldiz iazko datuen azpitik jarraitzen du langabezia tasak Usurbilen; %9,1 egin du behera iaztik hona, industria alorreko langabetuen kopuruak, eta %4,4 zerbitzuetan.

Datu guztiok, grafiko eta taulen bidez, Usurbilgo Udalaren web orrian kontsulta daitezke, "Usurbil Zenbakitan" atalean.

Enplegua sustatzeko, eskualdeko lankidetzak bultzatuko dute udalek

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek eskualde mailako lankidetzak protokoloa izatea aho batez onartu zuen udalbatzak, joan den ostiraleko ezohiko osoko bilkuran. Ekonomia eta enplegua sustatzea ditu helburu nagusi, Buruntzaldeko sei udalerriek sinatu asmo duten lankidetzak hitzarmenak.

Onartu berri den proposamenaren jasotzen denez, “eskualde mailako protokolo honen helburua da agiria izenpetu duten udalen arteko koordinazioa eta elkarlanaren araubidea ezartzea, gure lurraldearen egoeraren diagnostikoa egite aldera eta enplegu eta sustapen ekonomiko arloan plan lokal edo eskualde mailakoak garatze aldera”.

Behatoki Sozioekonomikoa

Lankidetzak honen baitan, honako lan ildoak jorratzea aurreikusia dago: garapen lokalerako plan estrategikoak prestatzea, eskualdeko Behatoki Sozioekonomikoa martxan jartzea, enpresa berriak jartzeko azpiegiturak bultzatzea, jarduera ekonomikoak sus-



USURBILGO UDALBATZAK AHO BATEZ ONARTU ZUEN ESKUALDE MAILAKO LANKIDETZA HITZARMEN HAU SINATZEA.

tatzea... Ildo hauen segimendua egiteko, udal ordezkari politikoez osaturiko Jarraipen Batzorde bat ere sortuko da. Hasiera batean, lankidetzak hiru urtebetez egongo da indarrean, “beti ere luzatzeko aukerarekin”. Gobernu taldeak, Mertxe Aizpurua alkateak, alor honetan koordinazioa bultzatzeko lan tresna egokitzat jo zuen. Udalbatzak aho batez harturiko erabakia, Buruntzaldeko gainerako udalei jakinaraziko zaie orain.

Martxoaren 29rako atxikimenduak

Martxoaren 29rako greba deialdiari begira hainbat atxikimendu izan dira azken egunotan. Tartean, Ezker Abertzalea, Aralar eta ITAYA Gazte Asanbladarenak.

“Aurreko hiru greba orokorretan egin moduan, Ezker Abertzaleak ere euskal jendarte osoari deia luzatzen diogu, greba orokorrean parte hartuz, aldaketa politiko eta sozialeko motor bihurtu dadin”, ohartarazi dute usurbileginez.com web gunearen bidez. Norberak bere esparrutik, indarrak bildu eta murrizketei aurre eginez, alternatiba bat artikulatzeko grebara deitu dute.

Aralarrek ere bat egin du greba orokorrekarekin. Euren ustez, euskal gizarteak agerian utzi behar du hilaren 29an bestelako eredu bat behar dela, “gizarte juxtu eta solidarioagoa eraikitzeko”, egungoak porrot egin baitu. Egungo ereduko kudeatzaileek gizarte sektore ahulenen kontra egin dutela diote. Horregatik, Aralarren ustez, “ez da eskuak gurutzatuta geratzeko garaia”. Harreman euskal esparrua eta justizia sozialean oinarrituriko alternatiba aldarrikatzen ditu.

ITAYAK ere 24 orduko lan-uztearekin bat egin du. “Gazteok ere badugulako zeresanik gure etorkizuneari! Inposaketarik ez!”, adierazi dute.

Greba orokorrari begirako manifestazioa ostiralean, Lasarte-Orian

Martxoaren 29ko greba orokorrari begira, mobilizazioak deitu dira eskualdean. Asteazken honetan, hilaren 21ean bi herri batzar antolatu ditu Buruntzaldeko ELA-k, Hernanin.

Herri batzarra Hernanin

Goizeko 10:00etan eta arratsaldeko 18:00etan, “Buruntzaldeko langile, langabetu, ikasle, erretiratu zein beste edozeinentzako”.

Manifestazioa Lasarte-Orian

Bestalde, Buruntzaldeko LAB sindikatuak eskualde mailako manifestazioa antolatu du ostiral honetarako, martxoaren 23rako, Lasarte-Orian.

Iluntzeko 19:00etan abiatuko da mobilizazioa, Okendo plazatik. Sindikatu berak, Hernanitik abiatu eta eskualde osoa zeharkatuko duen auto karabana deitu du, martxoaren 27rako.

Arantza Illarramendi, urteko informatikari

Estatu mailako informatika saria jaso berri du Arantza Illarramendi usurbildarrak, informatikari onenarena hain zuzen. Aipatu merezimendua, emakume batek jasotzen duen lehen aldia da honakoa. Pozik dago herritarra.

Espainiako Zientifiko Informatika Sozietateak 2005az geroztik ematen dituen sarietako bat, usurbildar batek jaso berri du, EHUKo Informatika Fakultateko katedradun Arantza Illarramendik.

ARANTZA ILLARRAMENDI

“Ikerketa aldizkarietan Illarramendiren lanak oihartzun handia izan du”

Zientzia alorrean eginiko ekarpenengatik, Aritmel saria eman eta

modu horretan, urteko informatikari onena izendatu dute. Aipatu sozietateak usurbildarrak eginiko ikerketak errekonozitu nahi ditu. Arantzak aldizkari honi adierazi dionez, “nazioarte mailan oihartzuna izan duten” ikerkuntzak saritu ohi dituzte. “Ikerketa aldizkarietan lanak aurkeztu eta jendeak zitak egiten ditu. Neure lanak nahiko zita dezente dituela ikusi zuten”, adierazi du usurbildarrak.

“Oso neska gutxi daude”

Halako sari bat jaso duen lehen emakumea izateak asko suposatzen dio Arantzari, baina baita erronka bat ere, “erakusteko informatika munduan gai garela berdin-berdin emakumezkoak eta gizonezkoak. Informatika ikasketetan oso neska gutxi daude. Ia animatzen diren”. Azken urteotan hain zuzen, Illarramendik azaldu duenez, ikasketa hauetan murgiltzen direneta- tik gutxi batzuk baitira neskak.



ARANTZA ILLARRAMENDI
INFORMATIKA FAKULTATEKO
KATEDRADUNA DA.

Tapa eta aurkibideak prest

Agur esan diogu 2011 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2011ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditza- kezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koaderna- tzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

2011



433-473 zenbakiak

Kalitate Ziurtagiria eskuratu dute Hurbilago elkarteko sei saltokik

Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatibak, Lizardi liburu dendak, Lurdak, Otar-Goxok, Paumak eta Usurbil Optikak UNE 175001 Kalidenda ziurtagiria eskuratu dute, bezeroei eskaintako zerbitzua kalitatezkoa dela bermatzen duten ziurtagiria hain zuzen. Modu honetan borobildu da, Hurbilago Usurbilgo Merkataritza eta Ostalarien Elkarteak sustatu eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberarekin saltokiok elkarlanean egin duten ibilbidea.



GIPUZKOAKO MERKATARITZA GANBARAN JASO ZUTEN KALITATE AGIRIA.

Hurbilagotik adierazi dutenez, “kalitate ziurtagiri hau, merkataritza-ko saltoki txikiak dago zuzendua eta dendek bezeroari eskaintako zerbitzuaren kalitatean zein betebeharrak dituzten ezartzen du”.

GEHIAGO IZANGO DIRA

“Aurrera begira, ziurtagiri hau herriko saltoki gehiagok jasotzeko lanean jarraitzeko asmoa du Hurbilago”

Iaztik burututako lanaren emaitza da, aipatu sei saltokiok jaso duten ziurtagiria. Urtebeteko tartean, jasotako emaitza lortu arte, hainbat urrats eman dituzte. Lehenbizi zein baldintza bete behar zituzten, eta Kalidenda araua “denda bakoitzean nola inplementatu ezagutzeko bilerak egin ziren”. Inplementazio fasea etorri zen gero, Hurbilagotik zehaztu dutenez, “saltoki bakoitza zein egoeratan zegoen ikusi, diagnosi bat eginez, eta aldatu, hobetu edo berritu beharreko alderdi, elementu eta zerbitzuak identifikatu ziren”. Hobekuntza prozesu bati ekin zioten jarraian, zerbitzuaren kalitatea ahalik eta gehien hobetzeko.

“Hobekuntzarako neurriak hartu eta denbora batera, horretarako baimendua dagoen kanpoko auditoria-erakunde bat denda hauetara bertaratu da eta UNE 175001 Arauak ezarritako betebeharrak eta baldintzak ziurtatzen direla egiaztatu da”, azaldu dute Hurbilagotik. Egiaztatze prozesua gainditu ostean jaso dute Usurbilgo sei saltokiak, aipatutako kalitate ziurtagiria.

Hurrengo urratsa, hedapena

Baikorki baloratu dute Hurbilagotik saltokiok ziurtagiria lortu izana. Are gehiago, nabarmendu dute baliabide mugatuak izanik, hobetu, berritu eta kalitatearen alde egin duten apustua. Garrantzitsutzat jo dute, herri merkataritza indartzeko sei denda hauek hartu duten konpromisoa. “Urrats txiki bat da baina nahiz eta txikia izan saltoki hauek erakusten duten jarrera oso garrantzitsua da, adierazten baitu komertzio hauek ez daudela geldirik, ez daudela kanpotik norbait etorri eta egoera noiz hobetuko zain, baizik eta beraien esku dagoena eginez Usurbilgo herri merkataritzaren etorkizunean sinesten dutela”, baloratu du Hurbilagok. Aurrera begira, ziurtagiri hau herriko saltoki gehiagok jasotzeko lanean jarraitzeko asmoa du Hurbilago Elkarteak.

Igandean Truke Azoka

Trukalariek taldeko kideek Truke Azokaren edizio berria antolatu dute, igande honetarako, martxoaren 25erako Txokoalden. Goizeko 10:00etatik aurrera, Erroizpe elkarte aurrean kokatuko dituzten postu desberdinetatik barrena osteratxoa egiteko aukera izango da. Trikitilariak alaituko dute goiza, eta eguna bazkari batek borobilduko du.

Salerosketarik gabeko eta diruak baliorik ez duen ekimena dugu Truke Azoka, herritarrek adosturiko tratuak eta objektu edo gaitasunen arteko trukean oinarritzen baita. Berrerabilpena eta trukea dira beraz, azoka honen ardatz nagusiak. Parte hartzailea izateaz gain. Edizio honetan ere, herritarrek hain zuzen, trukatu nahi dutenarekin hornituriko beren postua jarri ahal izango dute.

Erroizpe-ko batzarra

Txokoaldeko Erroizpe elkarteak urteroko batzarra antolatu du, oraingoan, apirilaren 15erako. Hitzordua, goizeko 11:00etan jarri dute elkartearen bertan.

Faboritoak nagusitu ziren Aginagako lasterketan

Eguraldi txarra zegoen iragarria baina, lasterketan zehar, ateri egon zen eta une batzuetan eguzkiak gogotsu argitu zien bidea Aginagako IV. Mendi Lasterketan parte hartu zuten lasterkariei. Iaz baino partehartzaile gutxiago aritu baziren ere, giro onean osatu zituzten 14 kilometroak. 108 lasterkari izan ziren irteeran.

Aginagako Mendi Lasterketan podiuma honela geratu zen:

Nesketan: 1 Nerea Amilibia, 2 Eva Pelaez, 3 Miren Casado.

Mutiletan: 1 Igon Manzidor, 2 Aitor Rubio, 3 Luis Mari Otegi.

Aginagako lehen lasterkariak: Izaro Ezpeleta, nesketan; Carlos Fernandez, mutiletan.



LASTERKETA IKUSTERA HURBILDU ZIREN GUZTIAK HAMAIKETAKOAZ GOZATZEN ZUTEN BITARTEAN EGIN ZEN SARI BANAKETA.

Aginagako IV. Mendi Lasterketako sailkapena

Izen-abizenak	Denbora	Herria						
1. IGON MANCISIDOR	1:04:08	DEBA	KOLDO LERTXUNDI	1:15:10	USURBIL	ASIER ARAMENDI	1:21:48	AZPEITIA
2. AITOR RUBIO	1:05:06	ORIO	JOSE MIGUEL PEREZ	1:15:12	ORIO	OIER ARISTIZABAL	1:22:09	OIARTZUN
3. LUIS MARI OTEGI	1:05:21	BILLABONA	LUIS MANTEROLA	1:15:14	ORIO	JOSEBA REZOLA	1:22:19	USURBIL
CARLOS FERNANDEZ	1:05:52	AGINAGA	MIKEL SALABERRI	1:15:42	ZIZUR MAYOR	HODEI HERNANDEZ	1:22:36	MUTRIKU
MIKEL IRURETAGOiena	1:06:01	AIA	OIHAN PEREZ	1:15:51	BERA	MIREN CASADO	1:22:58	ZARAUZ
XABIER PLAZAOLA	1:08:08	ORENDAIN	RIKARDO IDIAKEZ	1:15:57	ITZIAR	JUAN INAZIO	1:23:12	ZUMAIA
JOSE MARI BERNEDO	1:08:10	EIBAR	XABIER ELIZALDE	1:16:03	ZUMAIA	IKER MUGUERZA	1:23:49	ZORROTZA
ANDER ANSA	1:08:25	BILLABONA	JON GOIKOETXEA	1:16:05	GAZTELU	AGUSTIN BEGIRISTAIN	1:24:23	AGINAGA
MIKEL OLAIZOLA	1:08:31	AZPEITIA	IGOR OTAEGI	1:16:09	OIARTZUN	J. ANGEL MENDIZABAL	1:24:53	ZUMAIA
IGOR FERNANDEZ	1:09:30	EIBAR	NEREA AMILIBIA	1:16:29	AIA	KOLDO ASURMENDI	1:25:49	BEASAIN
IOSU IZAGIRRE	1:09:43	ITZIAR	JON ZUBIZARRETA	1:17:51	USURBIL	ARKAITZ LAZKANO	1:27:59	ZARAUZ
CARLOS GARCIA	1:09:46	IRUN	AITOR LAMEIRAS	1:17:54	EIBAR	IBON ELOLA	1:28:01	ZARAUZ
ALBERTO GOÑI	1:09:53	BERRIOZAR	XABIER GARMENDIA	1:18:13	DONOSTIA	AITOR MAKATZAGA	1:28:03	ZARAUZ
CLEMENTE JESUS	1:09:58	LAZKAO	DAVID CID	1:18:19	LAZKAO	AZARETE ENAUT	1:29:14	-
IGOR GALLASTEGI	1:10:04	EIBAR	OSKAR GIASASOLA	1:18:31	EIBAR	ENEKO DORRONSORO	1:30:08	ORIO
MIKEL RIVERO	1:10:09	DONOSTIA	IÑAKI ALZIBAR	1:18:38	ZUMAIA	EÑAUT AGIRRE	1:30:22	ONDARROA
MIKEL TENA DAVILA	1:10:23	USURBIL	ANDER UNANUE	1:18:41	ZUMAIA	JESUS MARI	1:30:40	DONOSTIA
DIEGO LIMON	1:10:36	LEGAZPI	JULEN AIZPURUA	1:18:44	ZUMAIA	AGUSTIN LAMARIANO	1:30:50	EIBAR
LAKE OIARBIDE	1:10:38	IDIAZABAL	IÑIGO OSINALDE	1:18:57	ORMAIZTEGI	JOSE MANUEL	1:32:05	ANDOAIN
IRAITZ ARRUBARRENA	1:11:32	LASARTE	MIKEL AROSA	1:19:10	ELGOIBAR	GORKA VARELA	1:32:51	ZARAUZ
BITTOR ELORDUY	1:11:40	MUNGIA	ARITZ HOLGADO	1:19:30	USURBIL	IÑIGO ODRIOZOLA	1:33:26	ZUMAIA
LANDER FRUNIZ	1:11:43	MUNGIA	AITOR ARRUTI	1:19:31	USURBIL	IBAN ARRUTI	1:33:47	USURBIL
EGOITZ ETXEBERRIA	1:12:13	ZARAUZ	LUIS MINTXERO	1:19:50	IRUN	OSCAR URRECHO	1:34:15	AMURRIO
IBAN LOPEZ	1:12:14	ZARAUZ	EDUARDO URIBE	1:19:53	EIBAR	MIKEL FERNANDEZ	1:34:22	GASTEIZ
BEÑAT ALKORTA	1:12:27	AIA	JOSE MARIA SEOANE	1:19:56	USURBIL	UNAI URANGA	1:35:07	OIARTZUN
HODEI ALKORTA	1:12:29	AIA	JAGOBA AROSTEGUI	1:20:06	ANDOAIN	VANESSA BAHON	1:35:45	DONOSTIA
DAVID ARAMBARRI	1:13:17	GERNIKA	EVA PELAEZ ZABALA	1:20:21	ANDOAIN	ALVARO RODRIGUEZ	1:35:46	DONOSTIA
LUIS NARBAIZA	1:13:39	ZALDIBAR	JOXEAN ALBERDI	1:20:22	ZIZURKIL	JOSEBA UNANUE	1:36:59	URNIETA
JUANJO ESTEVEZ	1:13:41	AGINAGA	TTTO IZAGUIRRE	1:20:26	AGINAGA	JOSE MARI ELOLA	1:39:31	DONOSTIA
JOSEBA SANCHEZ	1:13:53	UGAO	MIKEL ALKORTA	1:20:58	USURBIL	ISABEL RAMIREZ	1:42:30	AMURRIO
ION FONTENLA	1:14:13	ATAUN	ALEX UDABE	1:20:59	USURBIL	IZARO EZPELETA	1:42:40	DONOSTIA
JUAN RAMON	1:14:46	EIBAR	ALBERTO GUERRA	1:21:20	BILBO	ZURIKO LATAILLADE	1:42:42	USURBIL
RAUL FERNANDEZ	1:14:48	EIBAR	ENDIKA MARTIN	1:21:29	ARROA	JOSEAN RODRIGUEZ	1:45:00	USURBIL
			MANUEL MENENDEZ	1:21:40	OIARTZUN	ANA LIRON	1:46:28	BEASAIN

Andatzako mendizaleak, Altzaniako mendilerroan barrena

Altzaniako mendilerroko Aratz mendian izan ziren duela bi aste Andatza elkarreko kideak. “26 mendizale elkartu ginen. Otzaurtera iritsitakoan sumatu freskura, ibilbideko lanbroa edo zan-

patu behar izan genuen elurra, ez ziren oztopo izan aurreikusitako bidari jarraitzeko, eta pausoz pauso Aratzeko gailurra zanpatu ahal izan genuen”, handik bueltan igorri diguten kronikan diotenez.



26 LAGUN ELKARTU ZIREN ARATZ MENDIRA EGIN ZUTEN IRTEERAN.

Apirilean hasiko da Usurbilgo Pilota Txapelketa

Usurbilgo XXXX Pilota Txapelketa apirilaren 14an abiatuko da. Jubeniletan, aurten, 16 bikote arituko dira lehian, eta hauek maiatzean hasiko dituzte kanporaketa partidak. Zendoia-Telleria eta Ibargoien-Altuna bikoteak izango dira Usurbilen izenean arituko diren pilotariak.

Nagusien mailan, ordea, 32 bikote daude izena emanda. Zortzi bikote zuzenean azken zortzirenetan sartuko dira maiatzean (tartean, Santxo-Altuna usurbildarrak), eta beste 24 bikoteek ligaxka bat jokatu beharko dute, apirilaren 14an hasita. Ligaxkan arituko diren usurbildarrak hauek izango dira: Imanol Zinkunegi-Markel Galarraga, Joseba Bengoetxea-Iker Zinkunegi, Gorka Mendizabal-Lizeaga, Lizaso-Erreka, Portu-Zabala, Katalina-Aranalde, Errasti-Urruzola.

Datorren asteko NOAUA!n emango ditugu xehetasun gehiago.

Taldekako txapelketan, gure judokak gero eta hobeto

Villaviciosa de Odon herrian jokatu zen taldekako Judo Txapelketaren bigarren jardunaldia. Usurbilgo Judo Taldeko neskek bikain aritu ziren eta lau saioetan nagusitu ziren. Saillkapen orokorrean, laugarren postuan daude orain Usurbilgo taldeko neskek. Mutilek, aldiz, hiru saio irabazi zituzten eta bakarra galdu, Madrilgo Kiofu talde indartsuaren aurka. Era honetan,



Usurbilgo Judo Taldeko mutilen taldea bosgarren postuan da. Bi jardun-



naldi geratzen zaizkie oraindik dominen postuetara iritsi ahal izateko.

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

663 08 76 71 • 943 24 34 65

Laster hasiko da berdintasunaren aldeko III. Futbito Txapelketa

Herriko futbito txapelketaren aitzakian, laster, nahikoa saltsa izango da ostiral gauean. Itayak antolatu du eta, iaz bezala, berdintasuna bultzatu nahi dute. Neskek eraturako taldeak edota talde mistoak osatzeko aukera izango da.

Izena emateko epea martxoaren 30ean itxiko da, eta Itayakoek aditzera eman dutenez, "orain arteko legeekin jarraituko dugu. Hau da, astero-astero, talde bakoitzetik epaile bana izendatuko da eta hauek ez badira azaltzen puntuak kenduko zaizkio taldeari".

Bestalde, gogoratu nahi da herri mailako txapelketa izanik "herritarren parte-hartzea eta giro ona bultzatzea dela gure helburua, beraz, askotan izaten diren sarrera gogorrak ekiditea nahi dugu. Liskarrak utzi norbere etxean!".



40 EUROTAN DA IZEN-EMATEA.

Hauek dira betebeharreko baldintzak:

- Taldeko 40 euro (asegurua eta materialarentzat).
 - Norberaren Nortasun Agiriaren fotokopia.
 - 1995. urtekoak edo zaharragoak izatea.
 - Gauza guztiak biltzean, sobrea kiroldegian utzi (martxoaren 30a azken eguna!).
- Antolatzailea: Itaya.

Ion Korta bigarren, Loiolako Duatloi Txapelketan

Ion Korta bigarren postuan sailkatu izen Loiolan ospatu zen XI. San Jose Mendi Duatloian. Baxurde Txikiko Ion Carbayeda laugarren sailkatu zen, bosgarrenean Unai Korta, 28. postuan Iosu Vazquez eta 56. postuan Peio Sasiain.

Beste bi usurbildarrek Espainiako Duatloi Txapelketan parte hartu zuten larunbat arratsaldean Burgosen; Iñaki Añorgak eta Mikel Otaegik. Euskadiko selekzioarekin batera joan ziren, estatu mailako txapelketara.



BAXURDE TXIKIKOAK GOGOTSU HASI DUTE DENBORALDIA.

Eskubaloiko errifa zozketa

Eskubaloiko zozketan sarituriko herritarra Iraitz Perez Etxabe izan da. Bi lagunentzako otordua irabazi du Zubietako



Astiazaran sagardotegian. Ohi bezala, Usurbil Kirol Elkartetik zozketan parte hartzen duten jateak eta errifak erosten dituztenak eskertu nahi dituzte.

Ligako azken partidak bi eskubaloi talderentzat

Asteburuan senior mailako bi taldeek, liga denboraldi honi dagokion azken neurketa jokatu dute etxean, Oiarde Kiroldegian. Zaletuei neurketa hauek ikustera deitzen diete Usurbil Kirol Elkartetik, "denboraldi guztian bezala, kiroldegira gerturatzea eskertuko genieke Ligako bi taldeen azken jardunaldian herri guztiaren babesa senti dezaten".

Usurbil KETik gaineratzen dutenez, bi taldeek "salbazio matematikoa lortu dute. Senior neskek 8. postua bermatu zuten lehengo astean (10eko liga da eta 2 jaisten dira mailaz), bi jardunaldiren faltan. Mutilen 2. Nazional mailako taldeak ere lehengo astean lortu zuen salbazio matematikoa, 3 jardunaldiren faltan". Liga amaituta, bi taldeek Gipuzkoako Kopa jokatu dute.

Eskubaloia kiroldegian

2012/03/24, LARUNBATA:

Senior neskek, Euskal Liga "A". 17.00h.

Atez Ate Usurbil - Tecnifuelle Elgoibar

Senior mutilak, 2. nazionala. 18.30h.

Atez Ate Usurbil - Gure Auzune

LATAILLADE

ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

JE **JON ELORZA**

IGELTSERITZA OROKORRA

Obrak eta erreformak

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Agenda !!

Martxoak 22 osteguna

18:30 Loatzo Musika Eskolarekin trukaketa, Sutegin. Soinurbil 2012.

Martxoak 23 ostirala

17:00 Ixabel Agirresarobe ludotekan.
20:30 Demode Quartet Sutegin.

Martxoak 24 larunbata

20:00 Donosti-Ereski abesbatza Salvatore elizan.

Martxoak 25 igandea

10:00 Truke azoka Txokoalden.
11:30 Garinoingo Musika Bandaren kalejira. 12:30ean frontoian.

Goardiako farmaziak

Martxoak 22, osteguna
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Martxoak 23, ostirala
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Martxoak 24, larunbata
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Martxoak 25, igandea
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Martxoak 26, astelehena
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Martxoak 27, asteartea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Martxoak 28, asteazkena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Martxoak 29, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Martxoak 30, ostirala
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Martxoak 31, larunbata
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Apirilak 1, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

* Larunbatetan, *Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani
Telefono zenbakia: 943 552 087.
Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA
25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)

Emanaldia eta askaria, ostiral honetan ludotekan

Udaberriari ongi etorria emateko, arratsalde pasa antolatu dute Bihurri haur ludotekako arduradunek, ostiral honetarako, martxoaren 23rako. Ixabel Agirresarobek emanaldia eskainiko du 17:00etatik aurrera. Ondoren, askaria antolatu dute. Arratsalde pasa ludotekako bazkide direnei zuzendua egongo da.

Bazkietza kanpaina

Martxoaren 31n itxiko da, Bihurri Haur Ludotekan bazkietza egiteko epea. Bazkide berriek 30 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide izaten jarraitu nahi dutenek 10 euro. Kuota hauek familiako ordaindu beharko dira. Ordainketak ludotekak Kutxan duen kontu korronte zenbakian egin behar dira, norbere izen abizenak jarrita. Eta ondoren apuntatu behar da, Gaztelekuko egoitza ondora gerturatu. Asteazkenetan, 18:00-19:00 artean.

Aste Santuan,

Txokoak Aginagan

Antxomolantxa Kultur Elkarateak Txokoak antolatu ditu Aste Santuetarako. Martxoaren 31n, eta apirilaren 2, 3, 4, 10, 11, 12 eta 13an goizez burutuko dira txokoak, 10:00-13:30 artean. Prezioa: 10 euro bazkideak, 20 euro gainerakoak.

Izen ematea: martxoaren 29ra arte. Aste Santuko oporraldia igarota, tailerrak izango dira (eguneko 3 euro). Argibide gehiago, Antxomolantxakoekin harremanetan jarriz edo telefonoz: 610 875 287.



IXABEL AGIRRESAROBEEK
EMANALDIA ESKAINIKO DU
17:00ETAN.

Santixabelak prestatzeko bilera

Jai Batzordeak antolaketa lanetarako lehen bilera deitu du, martxoaren 28rako. Hitzordua, Potxoenea kultur etxe berrian finkatu du, arratsaldeko 18:30etan. Jai egunak zehaztu eta herriko talde zein elkarte desberdinek festetarako dituzten lehen proposamenak jasotzen hasteko asmoa du Jai Batzordeak, lehen bilera honetan.

Ordu aldaketa

Martxoaren 24tik 25erako Mgoizaldean, ordulariak ordu bete aurreratu beharko ditugu, goizaldeko 2:00etan 3:00ak direla adierazteko.



INATETXEA - TABERNA
BELARTZA

© 943 37 60 82

Eguneroko menuak eta larunbatetan menu bereziak

- Plater konbinatuak, otartekoak...
- Pintxoak, razioak...
- Umeentzat menu bereziak
- Atsedeen egunak: larunbat gaua eta igandea

DECATHLONen ONDOAN

Poliqono Belartza • Gurutzegi kalea, 15 - AA Pabiloia • Donostia

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

OSASUN GIDA 2012



**USURBIL
OPTIKA**

Ertzumeroko aparatuak • Igenlekuko tapoiak neurrira eginda
BEHERAPENAK, eguzkitako betaurrekotan %50ane

Zubiaurrenea, 10. • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

**UMEEN
BETAURREKOETAN
LENTE BAT
DOAN!**



FISIOTERAPIA ZENTROA
Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxes: 943 370 306



Kima
MASAJE LEKUA

-Kirol masajea
-Masaje terapeutikoa
-Kolonaren hidroterapia
(idortasuna eta haize arazoak hobetzeko)

☎ 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA



**iturralde
botika**

Tomas Iturralde botika
R.P.S. Nº 88/07

- ✓ Maisu formulak
- ✓ Dermofarmazia
- ✓ Produktu Homeopatikokoak

Borda berri 1, 20170 USURBIL ☎ 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

TXOTX!!



Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!

AIALDE BERRI

Tel: 943 365 031

Santuenea



LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdietan IREKITA
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baseria **Ereñotzu - Hemani**
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867



SAIZAR
Betiko Sagardoa

Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 37 39 95
www.sidrassaizar.com



ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.

Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



ERRETEGIA • NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA

Sagardo ekologikoa

Arratzain Baseria
info@agroturismoarratzain.com
Telf: 943 36 66 63
20170 USURBIL



☎ 943 36 12 29

iruvin
sagardotegia

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com



AGINAGA
Sagardotegia

Urte osoan txotxetik

Estreka kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel eta Faxes: 943 36 67 10
Tel: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginasagardotegia.com